



**I. Ikuskapen eta Kontrol Plana, jokoaren eta ikuskizun publikoen alorrean,
2017-2020**

**I. IKUSKAPEN ETA KONTROL PLANA, JOKOAREN ETA IKUSKIZUN
PUBLIKOEN ALORREAN,
2017-2020**

Nafarroako Gobernua
Lehendakartzako, Funtzio Publikoko,
Barneko eta Justiziako Departamentua



Gobierno de Navarra
Departamento de Presidencia,
Función Pública, Interior y Justicia



**I. IKUSKAPEN ETA KONTROL PLANA,
JOKOAREN ETA IKUSKIZUN PUBLIKOEN ALORREAN,
2017-2020**

1. PLANAREN JUSTIFIKAZIOA

Plan honen helburua da, era iraunkor eta ordenatuan, kontrol administratiboko eta ikuskapeneko jarduketak ezartzea, Administrazioak, batetik, ezagutu ahal dezan zein den inplikaturako sektoreen egoera legezkotasunari begira eta, bestetik, ez-betetzeak zuzendu ahal ditzan, Administrazioak duen zehapen lanari kalterik egin gabe. Ikuskapeneko jarduketaren planifikazioak jarrera arduratsuak sustatzen ditu, eta, jarrera horien eraginez, ikuskizun publikoak eta josteta jarduerak hartzen dituzten instalazioek eta establezimenduek hobeki funtzionatzen dute, horien titularrek hobeki mantentzen dituzte eta, gainera, ahalbidetzen da alor hauetan epe zehatz baterako lortu nahi diren helburu orokorrak diseinatzea.

Plan honen helburu nagusi eta funtsezkoa da interes behinenak eta nabarmenenak zainduko direla bermatzea, eta ahalbidetzen du, batetik, jarduketa esparru hauetako parte hartzerik kaltegarrienak desagerraraztea eta, bestetik, horiek egiteko asmoa kentzea. Horretarako, elementu funtsezko, beharrezko eta saihestezina da esku hartzeko eta lehenesteko irizpideak ezartzea. Antolamendu administratiboari eta haren mugei dagokienez, ahalbidetuko du giza baliabideak eta baliabide ekonomikoak eskura izatea eta haiek bideratzea bere helburuak eraginkortasunez eta efizientziaz lortzea.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 71. artikulua babestu egiten du esku-hartzeak arrazionalki eta txukun lehenestea. Izan ere, artikulua horrek aukera ematen dio administrazio unitateari, arrazoiak emanda, espedienteak lantzeko hurrenkera alda dezan; hala, esku-hartzea diseinatu ahalko du egindako arau-haustearen eta babestu beharreko ondasunen garrantzian eta izaeran oinarrituta, horri bezainbesteko garrantzia eman gabe salaketan eta espedienteen hasieraren hurrenkera hertsia, horiek munta, izaera eta motibazio oso desberdinak baitituzte.

Ikuskapenaren helburu nagusia da proaktiboki esku hartzea definitutako gaietan izandako ustezko arau-hausteen aurrean, horien jarraipena eta sendotzea eragotziz, eta esku hartzeko lehentasunak aginduz eta esleitzuz. Hala ere, aintzat hartzen dira, baztertu gabe, bai jarduketa programetatik kanpo egiten diren salaketez, eskaerez edo erreklamazioez ere arduratu beharra, bai horiek plan hau ezartzeko prozesuan sartzea, aurretik kontuan izanda, betiere, larriak ote diren eta plan honek ezarritako lehentasunen sailkapenean non kokatzen diren.

Osagarri gisa, tresna honek informazio hau eman beharko dio Administrazioari: egungo araudiak ezarritako eskakizunak zenbateraino betetzen diren eta gaurko errealitateari egokitzen ote zaion, atzematen diren gabeziak zuzendu ahal izateko eta, dagokionean, bidezkoak diren zehapenak eta neurri zuzentzaileak ezartzeko.

Eskuhartze material eta denborazko honen antolamenduan, eskuhartze publikoaren egitura diseinatu beharko



I. Ikuskapen eta Kontrol Plana, jokoaren eta ikuskizun publikoen alorrean, 2017-2020

da, segurtasun juridikoa bermatzeko, bai lan hauetan diharduten operadore publikoena bai administratuen bere eskubideak gauzatzen ari direnean.

Plan honen egitura bi ardatz edo jarduketa eremu handi daude: joko eta ikuskizun publikoak.

Plan honek, ardatz hauetako bakoitzean, bereziki jorratzen ditu establezimendu publikoen segurtasunaren eta alderdi teknikoaren azterketa eta ebaluazioa, eta jardueren garapenaren jarraipena. Alderdi horiek batera baloratu dira, establezimenduen eta jardueraren izaera eta ezaugarriak kontuan izanda.

2. ESKUMENAK ETA EGINKIZUNAK

Jokoaren alorrean, Jokoari buruzko abenduaren 14ko 16/2006 Foru Legearen 34 eta 36. artikuluek Lehendakariitzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Departamentuari ematen dizkiote, batetik, jokoarekin eta apustuekin lotutako jarduerak ikuskatzeko eta kontrolatzeko, eta ikertzeko eta egiaztatzeko eginkizunak, eta, bestetik, gai horiekin lotutako zehapen ahalmena.

Bestalde, ikuskizunen alorrean, Nafarroako ikuskizun publikoak eta josteta jarduerak arautzen dituen martxoaren 13ko 2/1989 Foru Legeak hau xedatzen du 17. artikuluan: *"Nafarroako Gobernuak eta polizia kidegoak dituzten toki entitateek xedatuko dute polizia kidegoek ezar ditzatela ikuskizun publikoak eta, kasua bada, josteta jarduerak babesteko eta zaintzeko zerbitzu arruntak, ohi bezala egin daitezen eta legedia bete dadin"*. Zehapen eskumena aipatutako arauaren 27. artikuluan ezartzen da.

Irailaren 9ko 198/2015 Foru Dekretuak, Lehendakariitzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Departamentuaren egitura organikoa ezartzen duenak, Jokoaren eta Ikuskizun Publikoen Atalaren –Segurtasun Politikak Garatzeko Zerbitzuari atxikia dagoenaren– eskuetan uzten ditu eginkizun hauek: administrazio baimenak ematea, haiek kontrolatu eta ikuskatzea, eta joko, ikuskizun publiko eta josteta jardueren arloko segurtasun publikoko politiken arau-garapena eta betearazpena.

Foru dekretu horrek berak Araubide Juridikoaren eta Langileriaren Zerbitzuaren esparru material eta funtzionalean sartzen du Barne Zuzendaritza Nagusiaren eskumenekoak diren zehapen prozedurak abiaraztea eta instruitzea eta haien jarraipena egitea.


Azkenik, Nafarroako Foruzaingoaren Antolamenduaren eta Funtzionamenduaren egungo Erregelamenduak – irailaren 21eko 72/2016 Foru Dekretuaren bidez onetsiak– 30. artikuluan ezartzen duenez, zenbait Arlotan sartuta dauden unitate organikoek (kasu honetan, Joko eta Ikuskizunen Brigadak) Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioan joko eta ikuskizunen arloetan eskumena duten zerbitzuekin batera lan egin beharko dute, haiek ematen dituzten jarraibideak poliziaren lanetik atontzeko eta ezartzen diren helburuak lortzeko. Horretarako, zerbitzu horiek ematen dituzten jarraibideak betetzeko behar diren operazio eta neurriak programatu eta koordinatuko dituzte

3. ARDATZ ESTRATEGIKOAK, JARDUKETA LERROAK ETA NEURRIAK



I. Ikuskapen eta Kontrol Plana, jokoaren eta ikuskizun publikoen alorrean, 2017-2020

Ardatz estrategikoak (AE) gai multzoak dira, sektoreko arauetan erregulatzen diren berriazko materien araberakoak, eta horien barnean jarduketa lerroak (L) daude. Lerro horiek bete beharra dago, ezartzen diren eta lerro horiek garatzen dituzten neurri (N) batzuk gauzatuta.



1. ardatza. JOKOAREN ALORRA

Jarduketa lerroak:

L1: Legez kontrako edo katalogatu gabeko jokoak.

Xedea: Antolaketa atzematea eta, badagokio, ez uztea legez kontrako edo katalogatu gabeko jokoak edo apustuak egiten eta ustiatzen. Legez kontrako jokoak izanen da Nafarroako Joko eta Apustuen Katalogoan ez dagoena edo arauetaz kanpoko baldintzetan antolatzen, ustiatzen edo egiten dena.

Jarduketa lerro hau ondoko neurri (N) hauen bidez gauzatuko da:

- **N1:** Legez kontrako jokoak antolatzen diren edo horietan parte hartzeko aukera ematen duten lokalak eta aretoak zaintzea.
- **N2:** Legez kontrako jokoen publizitatea argitaratu edo joko horietan parte hartzea sustatzen duten lokalei eta hedabideei segimendua egitea.
- **N3:** Dagokionean, legez kontrako jokoak ustiatzeko edo egiteko erabiltzen diren tresnak edo materialak zigilatzea edo konfiskatzea.

L2: Baimenik gabe edo baimenduetako lokaletatik kanpo egindako jokoak.



I. Ikuskapen eta Kontrol Plana, jokoaren eta ikuskizun publikoen alorrean, 2017-2020

Xedea: Antolaketa atzematea eta, kasua bada, ez uztea jokoak edo apustuak (Katalogoan sartuak) ustiatzen, Nafarroako Gobernuaren edo beste administrazio eskudun batzuen baimenik gabe egiten badira.

Jarduketa lerro hau ondoko neurri (N) hauen bidez gauzatuko da:

- **N1:** Baimenik gabe ustiatzen diren joko katalogatuak kontrolatzea eta etetea.
- **N2:** Baimenik gabeko toki, lokal eta establezimenduetan ustiatzen diren joko katalogatuak kontrolatzea eta etetea.
- **N3:** Dagokionean, legez kontrako jokoak ustiatzeko edo egiteko erabiltzen diren tresnak edo materialak zigilatzea edo konfiskatzea.

L3: Adingabeak eta beste talde zaugarri batzuk.

Xedea: Eragozteko adingabeek eta Nafarroako Jokorako Sarbideko Interdikzioen Erregistroan sartuta dauden pertsonen joko eta apustuetan parte har dezaten.

Jarduketa lerro hau ondoko neurri (N) hauen bidez gauzatuko da:

- **N1:** Joko aretoetan sartzeko kontrolatzeko neurrien jarraipena eta ebaluazioa.
- **N2:** Bereiziki adingabeentzat diren lokalak kontrolatzea.
- **N3:** Adingabeak eta Jokorako Sarbideko Interdikzioen Erregistroan inskribaturiko pertsonak joko aretoetatik botatzea.
- **N4:** Jokoa kontrolatzea azoka-esparruetan eta jolas parkeetan.
- **N5:** Kontrolatzea ziberzentroak eta publikoari IKT berrietan sartzeko aukera ematen dioten beste lokal batzuk.
- **N6:** Kontrolatzea joko eta apustu makinak adingabeek eta beste talde batzuek erabiltzen ote dituzten.

L4: Baimendutako jokoak.

Xedea: Beren erregulazio esparruetan ezarritako baldintzetan ez baizik eta beste batzuetan egiten diren jokoen edo apustuen ustiaketa atzematea eta, kasua bada, etetea.

Jarduketa lerro hau ondoko neurri (N) hauen bidez gauzatuko da:

- **N1:** Makinak eta jokoko beste material eta sistema batzuk ustiatzea homologatutako baldintzetan ez baizik eta beste baldintza tekniko batzuetan.
- **N2:** Joko eta apustu makinak instalatzean baimendutako kopurua gaintzea.
- **N3:** Baimendutako apustuen eta sarien mugak aldatzea.
- **N4:** Jokoa buruzko abenduaren 14ko 16/2006 Foru Legearen aplikazio esparrutik kendutako jokoen jarraipena egitea.
- **N5:** Baimendu gabeko pertsonen jokoen esku hartzen duten kontrolatzea.



I. Ikuskapen eta Kontrol Plana, jokoaren eta ikuskizun publikoen alorrean, 2017-2020

L5: Jokatzeko eta apustuak egiteko erabiltzen diren aretoak eta elementuak.

Xedea: Egiaztatzea jokatzeko eta apustuak egiteko erabiltzen diren aretoek eta elementuek eusten ote dieten bete behar dituzten baldintza teknikoei.

Jarduketa lerro hau ondoko neurri (N) hauen bidez gauzatuko da:

a) Bingoen alorrean:

- **N1:** Kartoen salmentari, ateratako bolen zenbakiei, eskuragarri dauden sariei eta horien zenbatekoari buruzko informazioa duten elementu eta gailuen funtzionaltasuna.
- **N2:** Erabilgarri dauden joko terminalak.
- **N3:** "Akten liburua", "Sarien liburua" eta "Partidak egiaztatzeko eta artxibatzeko sistema" mantentzea.

b) Makinen eta jokoko beste material eta sistema batzuen alorrean.

- **N4:** Jokoaren programa duten memorien ikuskapen teknika eta egiaztatzaileen irakurketa.
- **N5:** Joko makinen kontagailuen kontrola eta irakurketa.

2. ardatza. IKUSKIZUN PUBLIKOEN ALORRA

Jarduketa lerroak:

L1: Establezimendu publikoak.

Xedea: Establezimendu, ikuskizun publiko eta josteta jardueren katalogoan –irailaren 23ko 202/2002 Foru Dekretuaren bidez onetsian– sartuta dauden establezimenduen kontrola.

Jarduketa lerro hau ondoko neurri (N) hauen bidez gauzatuko da:

- **N1:** Baimendutako jarduera.
- **N2:** Baimenduta dagoen gehieneko jende kopurua.
- **N3:** Ebakuazio bideen, irteeren eta larrialdiko ateen egoera.
- **N4:** Ebakuazio seinalerik badagoen eta, egonez gero, zer egoeratan dauden.
- **N5:** Larrialdiko argien funtzionamendua.
- **N6:** Jarduteko ordutegiak.
- **N7:** Erreklamazio orririk ba ote dagoen.
- **N8:** Aretoetan sartzen direnak kontrolatzeko sistemak eta langileak.
- **N9:** Adingaberik ba ote dagoen.



I. Ikuskapen eta Kontrol Plana, jokoaren eta ikuskizun publikoen alorrean, 2017-2020

- **N10:** Adingabeek alkohola kontsumitzen ote duten.

L2: Zezen ikuskizunak.

Xedea: Kontrolatzea zezen ikuskizunak, horiek egin aurretik eta egin bitartean, eta horiek gauzatzen direneko barrutiak.

Jarduketa lerro hau ondoko neurri (N) hauen bidez gauzatuko da:

a) Zezen ikuskizun herrikoiak:

- **N1:** Ibilbidea edo non egiten diren.
- **N2:** Osasun baldintzak (anbulantzia, erizaintza, osasuneko langileak).
- **N3:** Zezen ikuskizuneko profesionala eta laguntzaileak.
- **N4:** Adingabeen parte hartzea.
- **N5:** Zer abelburu mota erabiltzen diren.
- **N6:** Abelburuen gaineko tratatu txarrak.
- **N7:** Abelburuen arriskugarritasuna.
- **N8:** Ikuskizuna nola gauzatzen den.

b) Zezenketa duten zezen ikuskizunak:

- **N8:** Abelburuen identifikazioa, adina eta pisua.
- **N9:** Jarduleen identifikazioa eta profesionaltasuna.
- **N10:** Ikuskizuna etetea.
- **N11:** Administrazioaren ordezkariak dituen berezko egitekoak.
- **N12:** Zezenketa nola gauzatzen den

c) Zezen plazak:

- **N12:** Barreren ezaugarriak.
- **N13:** Kailejoiaen neurriak.
- **N14:** Eustormaren ezaugarriak.
- **N15:** Ikuiluak eta bakak: kopurua, neurriak eta baldintzak.
- **N16:** Osasuneko instalazioak eta baliabideak.

L3: Ikuskizun eta jarduera bereziak.

Xedea: Ikuskizun publikoak eta josteta jarduerak kontrolatzea, baldin eta lokal batean normalean egiten direnak ez bezalakoak badira.

Jarduketa lerro hau ondoko neurri (N) hauen bidez gauzatuko da:



I. Ikuskapen eta Kontrol Plana, jokoaren eta ikuskizun publikoen alorrean, 2017-2020

- **N1:** Baimendutako jarduera.
- **N2:** Baimenduta dagoen gehieneko jende kopurua.
- **N3:** Ebakuazio bideen, irteeren eta larrialdiko ateen egoera.
- **N4:** Ebakuazio seinalerik badagoen eta, egonez gero, zer egoeratan dauden.
- **N5:** Larrialdiko argien funtzionamendua.
- **N6:** Jarduteko ordutegiak.
- **N7:** Erreklamazio orririk ba ote dagoen.
- **N8:** Aretotetan sartzen direnak kontrolatzeko sistemak eta langileak.
- **N9:** Adingaberik ba ote dagoen.
- **N10:** Adingabeek alkohola kontsumitzen ote duten.
- **N11:** Berariazko baimena.
- **N12:** Baimenean ezarritako baldintzak betetzea.

4. JARDUKETA PROGRAMA

Kontrol eta ikuskapen plan hau jarduketa programen bidez gauzatuko da, eta programa horiek jarduketa lerro bakoitzaren lerro osoak edo neurri zehatzak izan eta garatu beharko dituzte.

Jarduketa programa gehienbat prebentziokoa izanen da, eta, horregatik, egin daitezkeen arau-haustek eta legez kanpokoak prebenitzeko edo zuzentzeko jarduketak diseinatu edo aintzat hartu ahalko dira.

Honako hau izanen da jarduketa plan bakoitzaren gutxieneko edukia:

- Jarduketa programaren edukia.
- Garatzen duen planaren lerroak edo neurriak zein diren.
- Bere baitan hartzen duen esparru geografikoa eta/edo jarduera sektorea.
- Ikuskapenen nondik norakoa eta maiztasuna.
- Hartzen diren prebentzio neurriak.
- Ikuskapenaren ardura duten unitateak.

Jarduketa programak proposatzeko eta onesteko, lehentasun irizpide hauek hartuko dira kontuan:

a) Babesten diren interes publikoen garrantzia, honako alderdi hauek aintzat hartuta, besteak beste:

1. Interes publikoak zer mailatan ukitzen diren.
2. Gertakarien munta, garrantzia eta kontzentrazioa.
3. Delitu zantzuak atzematen ote diren.
4. Administrazio egoera.

b) Ikuskatu behar den gaiaren garrantzia edo ondorio juridiko, sozial nahiz ekonomikoak.



I. Ikuskapen eta Kontrol Plana, jokoaren eta ikuskizun publikoen alorrean, 2017-2020

c) Jarduketarekin lortu nahi den prebentzio orokorreko eta bereziko eragina.

d) Arau-hausteen bidez bilatutako/lortutako onura ekonomikoa.

Segurtasun Politikak Garatzeko Zerbitzuko Zuzendaritza da jarduketa programak kudeatzen dituen unitatea, eta honako eginkizun hauek ditu:

- a) Jarduketa programak prestatzea eta horiek onesteko proposatzea.
- b) Jarduketa programak bultzatzea, koordinatzea eta kudeatzea.
- c) Kontrol eta ikuskapen plana betearazteko onesten diren programak direla-eta, emaitzen ebaluazioari eta helburuak betetzeari buruzko txostena prestatzea.
- d) Barne Zuzendaritza Nagusiari igortzea Kontrol eta Ikuskapen Plana eguneratzeko eta aldatzeko proposamenak.

Jarduketa programek urteko indarraldia izanen dute.

Komunikabide instituzionalen eta bitarteko elektroniko egokien bidez zabalduko dira jarduketa programen ebaluazio txostenaren emaitzak.

Halaber, jokoarekin zerikusia duten jarduketa programak ebaluatzeko txostena Nafarroako Jokoaren Kontseiluari emanen zaio.

Barneko zuzendari nagusiari dagokio jarduketa programak onestea, Segurtasun Politikak Garatzeko Zerbitzuaren Zuzendaritzak proposaturik.

5. IKUSKAPENAK

Jokoaren eta ikuskizunen alorreko ikuskapenak, jarduketa programa bakoitzean ezarritako esparruan egingen dira.

Honako hauek gauzatuko dituzte ikuskapen eta kontrol eginkizunak:

- a) Jokoaren arloan:
 - Foruzaingoak.
 - Jokoa eta apustuak ikuskatzea eta kontrolatzea bere gain duten langileek, zeinak agintaritza-agente gisa arituko diren, aplikatzekoa den araudian ezarrita dagoenaren arabera (Jokoari buruzko abenduaren 14ko 16/2006 Foru Legearen 34.2 artikulua).
- b) Ikuskizun publikoen eta josteta jardueren arloan:
 - Foruzainek eta udaltzainek.



I. Ikuskapen eta Kontrol Plana, jokoaren eta ikuskizun publikoen alorrean, 2017-2020

- Nafarroako Gobernuak edo toki entitateek izendaturiko langileek. Langile horiek, bere egitekoetan dihardutenean, agintaritza-agente gisa arituko dira, aplikatzekoa den araudian ezarrita dagoenaren arabera (Nafarroako ikuskizun publikoak eta josteta jarduerak arautzen dituen martxoaren 13ko 2/1989 Foru Legearen 17.2 artikulua).

Administrazioak honako hauen lankidetzat eta laguntza izan ahalko ditu: ikuskatzen eta kontrolatzen diren gai eta alorretako teknikari kualifikatuak, adituak eta kontrol erakundeak.

Ikuskapenari eta kontrolari lotuta dauden establezimenduen eta jardueren titular eta arduradunak behartuta daude entitate laguntzaileetako teknikariei instalazioetan sartzen uztera, jokoaren eta ikuskizun publikoen alorrean eskumena duen organoak behar bezala akreditaturik dihardutenean.

6. PLANAREN JARRAIPENA

Ikuskapen eta Kontrol Plana betearazteko onesten diren programei dagokienez, emaitzen ebaluazioari eta helburuak betetzeari buruzko txostenen bidez ondorioztatzen bada Kontrol eta Ikuskapen Planean aldaketak egin beharra dagoela, Barne Zuzendaritza Nagusiari jakinaraziko zaio, kontuan izan dezan eta, kasua bada, proposamena igorriko zaio plan hau onesteko eskumena duen organoari.

7. ADMINISTRAZIOEN ARTEKO KOORDINAZIOA

Jarduketa programetan, dagokion udalari galdetu ondoan, eta bakoitzak dituen eskumenen esparruan, ikuskapeneko jarduketak aztertzen eta ituntzen ahalko dira, Nafarroako Gobernuko agintaritza-agenteen eta kasuan kasuko udalen agintaritza-agenteen artean, dauden baliabideak optimizatzeko eta, establezimendu berean edo ikuskizun nahiz jarduera beraren inguruan, beharrik gabe ikuskapen bat baino gehiago egitea ekiditeko.

8. ZEHATZAILEA

Instruitzerakoan, lehentasuna emanen zaie onesten diren jarduketa programak gauzatzetik sortzen diren espediente zehatzaileei.

Jarduketa programez landa egiten diren salaketetan, eskaeretan edo erreklamazioetan aipatzen diren ustezko legez kontrakoak, ez dira lotesleak izanen instrukzioari begira, eta, arau-haustea egin delako zantzuak hautematen badira, prozedura abiatuko da, goian adierazi diren irizpideetan definitutako lehentasun hurrenkeraren arabera. Horrelakoetan, salatutako egintzak egiazkoak direla edo salatu bezala gertatu direla erakusten duten behar beste zantzu dagoela egiaztatzearen, zehapen prozedura tramitzatzeko ardura duen unitateak eskatzen ahalko du idazkiaren edo deklarazioaren edukia berresteko, zabaltzeko, azaltzeko edo, eduki horri buruz, dagokion beste jarduketa bat egiteko.

Salaketa, eskaera edo erreklamazioak garbiro oinarririk gabekoak, ulertezinak edo anonimoak badira, ez dira instruituko eta artxibatu egingen dira; berdin jokatuko da susmo sendoa badago horiek aurkeztu direla planifikatuta



I. Ikuskapen eta Kontrol Plana, jokoaren eta ikuskizun publikoen alorrean, 2017-2020

dagoen edo gauzatzen ari den ikuskapena oztopatzeko. Artxibatuz gero, salatzaileari jakinaraziko zaio zergatik ez den bidezkoa prozedura abiaraztea.

Aurkezten diren salaketak, eskaerak edo erreklamazioak garbiro oinarriak gabeak badira, erantzukizun ekonomikoak eskatzen ahalko zaizkio salatzaileari, Administrazioak izan dituen kostuengatik edo kalteengatik.

9. IKUSKAPEN ETA KONTROL PLANAREN INDARRALDIA

Plan honek lau urteko indarraldia izanen du, onesten den egunetik kontatzen hasita, eta gehienez ere beste urtebeterako luzatutzat joko da, baldin eta epe hori amaitzean ez bada beste plan bat onetsi.

10. IKUSKAPEN ETA KONTROL PLANA EGUNERATZEA

Ikuskapen eta Kontrol Plana eguneratutzat joko da, baldin eta informazioa osatzen duten edo planaren determinazioak egoki ulertu, zehaztu edo inplementatzen laguntzen duten edukiak atxikiz gero. Bereziki, eguneratutzat joko da lerro edo neurri berriak atxikitzea, baldin eta horiek inguruabar sozio-ekonomiko berrien ondoriozkoak badira, sektoreko legedian sartutako aldaketetatik eratorri badira edo beharrezkoak badira justizia auzitegiek hartutako erabakiak aplikatzeko.

Aurreko eguneratze horiek dagozkien jarduketa programen bidez egingen dira.